

# Hezkide



## hezkide: hezkuntzako kide

Ikasleak, irakasleak, gurasoak, bestelako herritarrak... milaka eta milaka gara hezkuntzaren inguruan aritzen garen lagunok. Gure lanbidea delako, gure seme-alaba bertan dagoelako edo ikasten ari garelako, asko gara hezkuntza esparruarekin harremana daukagun abertzaleak. Horiek bildu nahi ditu, hain zuzen ere, **hezkide**-sareak.

## hezkide: hezkuntza sistema propioaren aldeko kide

Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa behar du, dituen erronka sozial, kultural eta ekonomikoei aurre egin ahal izateko. Gainera, Herri bezala dagokigun eskubidea da. Ideia horrekin bat datozen lagunei **hezkide** izateko gonbidapena luzatzen diegu.

## hezkide: hezkuntza mugimenduko kide

Geure herriak behar duen hezkuntza eredua eraikitzeko urrats asko eman ditugu euskaldunok azkeneko hamarkadetan. Espainiar eta frantziar estatuek hamaika oztopo ezarri badizkigute ere, herri mugimendua hezkuntza tresna eta proiektu propioak martxan jartzeko gai izan da. Eta urrats berriak emateko garaia da. Herri bakoitzeko hezkuntza beharretatik abiatuta, hezkuntza sistema propioaren aldeko mugimendua sortzea, horra hor Euskal Herriak Bere Eskolaren erronka. **hezkide** hezkuntza mugimendu horren parte da.

## eskaintzen dizuguna:

- Hezkuntza esparruko kide bezala, hezkuntza sistema propioaren aldeko hezkuntza mugimenduko kide izatea.
- Egiten ditugun ekimenen eta proposamenen berri zuzenean jasotzea. 1.000 hezkide lortzen ditugunean, maiztasun jakin batez hezkideen etxetara helduko den aldizkaria argitaratzeko konpromezua hartzen dugu.

## eskatzen dizuguna:

- Zure ekarpen politikoa. Hezkuntza sistema propio baten aldeko lanean, guztion ekarpena da garrantzitsua. Dituzun kezka eta iritziak kontutan hartu nahi ditugu. Ekarpen, kezka eta iritzi horiek helaraztea eskatzen dizugu.
- Zure ekarpen ekonomikoa. Hezkuntza sistema propioaren aldeko mugimendua egituratzeko dirua ere beharrezkoa dugu. Arlo honetan zure ekarpena eskatzen dizugu. Hona hemen aukerak:

## nola egin hezkide:

1. Beheko laukitxo bete eta guri helarazi, zure herriko EHBeko kide bati emanez edota honako helbide honetara bidaliz: Amaia zentroa. Benito Perez Galdós z/g, GASTEIZ.
2. Hilabeteroko ekarpen ekonomikoa jasotzeko bi bide daude: laukitxoan kontu korrrontea jartzea (eta gu arduratuko gara bankuari agindua ematez) edota bankuari hilabeteko kuota honako kontu korronte honetan sar dezan agintzea: 3035 0106 16 1061078128

IZENA:		ABIZENA:		
<input type="checkbox"/> IKASLEA	<input type="checkbox"/> IRAKASLEA	<input type="checkbox"/> GURASOA	<input type="checkbox"/> HERRITARRA	
IKASTETXEA:		HERRIA:		
HELBIDEA:		HERRIA:		
POSTA ELEKTRONIKOA:				
DIRU KOPURUA:		<input type="checkbox"/> 2 euro	<input type="checkbox"/> 5 euro	<input type="checkbox"/> 10 euro
KONTU KORRONTEAREN ZBK.a:				